2. Antolakidetza-Batzorde Nagusiko Lehendakariak ezein agiri eska dezake edo egoki eritzitako arakaketak egin ditzake bidezko eritzitako zerbitzuen bidez.

*13. Atala.*—Eskabideen ebazpena Antolakidetza-Batzorde Nagusiko Lehendakariak egingo du, zioak emanez.

*14. Atala.*—Dekreto honen bidez araupetzen diren laguntzak, hartzekodunei legozkiekeen beste ezein eratako emankizun eta laguntzekin bateragarri izango dira.

AZKEN ERABAKIA

Antolakidetza-Batzorde Nagusiko Lehendakariari, Dekreto hau osabideratzeko beharrezko izan daitezen erabakiak hartzeko esku ematen zaio.

Gasteizen, 1983.eko Irailak hogei.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Antolakidetze-Batzorde Nagusiko Lehendakaria,
MARIO FERNANDEZ PELAZ.

2. El Presidente de la Junta Coordinadora Central reclamará cualquier documentación o hará las averiguaciones que estime pertinentes, a través de los servicios que estime convenientes.

*Artículo 13.*—Las solicitudes serán resueltas motivadamente por el Presidente de la Junta Coordinadora Central.

*Artículo 14.*—Las ayudas reguladas en el presente Decreto serán compatibles con cualesquiera otras prestaciones y ayudas que pudieran corresponder a los beneficiarios.

DISPOSICION FINAL

Se autoriza al Presidente de la Junta Coordinadora Central para que dicte las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

En Vitoria-Gasteiz, a veinte de Setiembre de 1983.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Presidente de la Junta Coordinadora Central,
MARIO FERNANDEZ PELAEZ.

## LEHENDAKARITZA-SAILA

1823

**Irailaren 19ko 193/1983 DEKRETOA, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideak betebidera daitezen sortutako Batzordearen osakerari buruz.**

Euskal Herriko Autonomia-Arduralaritzari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideekiko Ekainaren 22ko 11/1983 Legez, Lehendakaritza-Sailari atxikitako Batzordea sortzen da, bertan ohartemandako onurabideak betebideratzera jo ditzaten saloak egin daitezen.

Aipaturiko Legea betez, Lehendakaritza-Sailburuaren saloz Jaurtze-Batzordeak 1983.eko Irailaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.*—Euskal Herriko Autonomia Arduralaritzari zerbitzu egindako lanarien lanbide eta gozamen-eskubideekiko Ekainaren 22ko 11/1983 Legearen 9. Atalean sartzen den Batzordea honela eratzen da:

Lehendakaria:

Herri-Ihardunerako Artezkari Jaun Txit Argia.

Kideak:

Ekonomia eta Herriogasun-Artezkari Jaun Txit Argia.

Lan-Saileko Bateango-Harremanetarako Artezkari Jaun Txit Argia.

Osansuketa eta Gizarteseguruantza-Saileko Zerbitzu Artezkari Jaun Txit Argia.

Goi-Mailako Teknikaria izan dadin Zuzentza eta Lege-Garapenerako Idazkaritzaren izeneko bat, Sail horretako Buruak izendatuta.

## DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA

1823

**DECRETO 193/1983, de 19 de Setiembre, de composición de la Comisión para la aplicación de los derechos profesionales y pasivos del personal que prestó servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco.**

La Ley 11/1983, de 22 de Junio, sobre derechos profesionales y pasivos del personal que prestó servicios a la Administración Autónoma del País Vasco, crea una Comisión, integrada en el Departamento de Presidencia, para la formulación de las propuestas que procedan en orden a la aplicación de los beneficios previstos en la misma.

En cumplimiento de la citada Ley, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 19 de Setiembre de 1983, a propuesta del Consejero de Presidencia,

DISPONGO:

*Artículo 1.*—La Comisión creada en el artículo 9.º de la Ley 11/1983, de 22 de Junio, sobre derechos profesionales y pasivos del personal que prestó servicios a la Administración Autónoma del País Vasco, queda constituida de la siguiente forma:

Presidente:

Ilmo. Sr. Director de la Función Pública.

Vocales:

Ilmo. Sr. Director de Servicios del Departamento de Economía y Hacienda.

Ilmo. Sr. Director de Relaciones Colectivas del Departamento de Trabajo.

Ilmo. Sr. Director de Servicios del Departamento de Sanidad y Seguridad Social.

Un representante con categoría de Técnico Superior de la Secretaría de Justicia y Desarrollo Legislativo designado por el Titular de la misma.

Bertako buruak izendaturiko Lehendakaritza-Saileko Goi Mailako Teknikaria Batzorde Idazkari izango da.

2. *Atala.*—Lehendakaritza-Sailburuak, dagokien saloak egin ondorengo azterpen eta lanak egiteratzeko behar daitezen Teknika-Aholkulari guztiak sartu ahal izango ditu Batzordean.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*—Lehendakaritza-Sailburuari Dekreto hau egiteratu eta egiaz bete dadin beharrezkotzat jotzen dituen aginte eta erabakiak hartzeko esku ematen zaio.

*Bigarren.*—Dekreto hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadineko egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteizen, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Irailak hogei.

Lehendakari,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Lehendakaritza-Sailburua,
JAVIER CAÑO MORENO.

Actuará como Secretario de la Comisión un Técnico Superior del Departamento de Presidencia, que será nombrado por el Consejero Titular del mismo.

*Artículo 2.*—Podrán ser incorporados a la Comisión por el Consejero de Presidencia cuantos Asesores Técnicos sean necesarios para la realización de los estudios y trabajos previos a la formulación de las correspondientes propuestas.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*—Se faculta al Consejero de Presidencia para dictar cuantas disposiciones y resoluciones estime necesarias para desarrollo y efectivo cumplimiento de este Decreto.

*Segunda.*—El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteis, a veinte de Setiembre de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Presidencia,
JAVIER CAÑO MORENO.

## HERRIZAINGO-SAILA

1824

Abuztuaren 16ko 194/1983 DEKRETOA, ibilgailuen bidegoaia eta ibiltze-alorreango zigorrak ezartzeko gaitasundun diren Erakundei buruzko Otsailaren 21eko 20/1983 Dekretoa aldatuz.

Ibilgailuen bidegoai eta ibiltze-alorreango zigorrak ezartzeko gaitasundun diren Erakundei buruzko Otsailaren 21eko 20/1983 Dekretoa argitaratu ondoren, bidezko da dekreto hau aldatzea, Arabak bere duen Lege-jaurpidea, argi eta garbi bermatuta geldi dadin; guzti hori Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 37. Atalean agindutakoaren arabera.

Norbere agintepidearen eta arau-mailaketaren irizpideak oinarri harturik, aipatutako Otsailaren 21eko 20/1983 Dekretoak, Arabak bere duen Lege-jaurpidearekiko aldaketarik ez dakarrela ere epai-segurantzaren irizpideak komenigarritzak jotzen du honen aipamena.

Hori horrela, eta Herrizaingo Sailburuaren saloz, Jaurlaritzak 1983.eko Abuztuaren 16an egindako osoko bilkuran aztertu ondoren, zera

ERABAKITZEN DUT:

*1. Atala.*—Otsailaren 21eko 20/1983 Dekretoaren idazkera aldatzen da honako Gehigarrizko Erabaki bakar hau berari gehituz:

"Dekreto hau, bere duen Lege-Jaurpidearen indarrez errepidezko garraio, horren zaingo eta ikerketa-alorrean eta bai errepideak onean euste eta horiekiko Ertzaingo-alorrean ere Arabari dagozkion agintepideen kaltetan gabe ulertuko da."

Donostia, mila bederatzirehun eta larogeita hirugarreneko Abuztuak hamasei.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Herrizaingo-Sailburua,
LUIS M.ª RETOLAZA.

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

1824

DECRETO 194/1983, de 16 de Agosto, por el que se modifica el Decreto 20/1983, de 21 de Febrero, sobre los órganos competentes para la imposición de sanciones en materia de tráfico y circulación de vehículos.

Publicado del Decreto 20/1983, de 21 de Febrero, sobre órganos competentes para la imposición de sanciones en materia de tráfico y circulación de vehículos, procede modificar el mismo a fin de que quede salvaguardado, de forma expresa, el régimen jurídico privativo de Alava, todo ello de acuerdo con lo establecido en el artículo 37 del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Si bien, en base al principio de competencia y jerarquía de la norma, el referido Decreto 20/1983, de 21 de Febrero, no altera dicho régimen privativo, el principio de seguridad jurídica aconseja la mención expresa del mismo.

En su virtud, y a propuesta del Consejero de Interior, previa deliberación del Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de Agosto de 1983,

DISPONGO:

*Artículo 1.*—Se modifica el texto del Decreto 20/1983, de 21 de Febrero, añadiéndose al mismo la siguiente Disposición Adicional única:

"El presente Decreto se entenderá sin perjuicio de las competencias que, en virtud de su régimen jurídico privativo, correspondan a Alava en materia de transportes terrestres, vigilancia e inspección de los mismos así como en materia de conservación y policía de carreteras."

Dado en Donostia-San Sebastián, a dieciséis de Agosto de mil novecientos ochenta y tres.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Interior,
LUIS M.ª RETOLAZA.